


**UDALBILTZA<sup>®</sup>**

**BATZAR NAGUSIA**



**JARDUEREN BALANTZEA**

**Durango, 2006ko martxoaren 4an**



# UDALBILTZA®

## SARRERA

EAJ eta EA alderdietako hautetsiek osatutako UDALBILTZA-ren Kohesio Fondoa dugu UDALBIDE Elkarlan Elkarte, alegia Euskal Herriko herrialde guztietako erakunde eta udal euskaltzaleen elkartasun fondoa. Euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna babestu, garatu eta bultzatzeko nahia argiarekin 2.000ko urtarrilaren 11an sortua. Elkartearen helburua lurralde guztietako udalen arteko harreman eraikitzailea bultzatzea da. Honela, ekimen hitzartuak sustatzen dira hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, besteak beste. Testuinguru horretan ugari dira UDALBIDEK urte hauetan guztietan lagundutako proiektuak eta asko dira ere Elkarteak berak proiektatu eta burututakoak.

Adierazgarriak dira oso datuak: 2000. urtean UDALBIDEk 9.000 euro (milioi eta erdia pezetatan) banatu zituen. Banatu baino Euskal Herriko Liga Elkarteari luzatu zizkion, Nazio Batuen aurrean bekadun bat lanean jarduteko euskal kulturaren defentsan. Sei urte berantago, 2005ean, UDALBIDEk 1.304.000 euro baino gehiago banatu ditu, 50 proiektu baino gehiagoren artean. Beste horrenbeste elkarte, talde, komunikabide, ikastetxe eta abar izan dira laguntza hauen jasotzaileak, Euskal Herria osokoak, baina oso bereziki Iparraldea eta Nafarroakoak. Ez da harritzekoa, izan ere, hauek baitira zoritxarrez egun ere ahulenen dabilzan euskal eskualdeak.

Lan anitz dago egiteke oraindik eta UDALBILTZAK beste urte batez berretsi du bere konpromisoa.

## **DATUEN IRAKURKETA: LANKIDETZA HITZARMENEN NONDIK NORAKOAK**

### **NAFARROA**

#### HEZKUNTZA

UDALBIDE Elkarlan Elkartea abian jarri zenetik nabarmentzeko modukoa da esaterako Nafarroan hezkuntzaren alorrean egindako ahalegina. Erronka galanta du euskal hezkuntzak Nafarroan; D ereduko matrikulazioak gora egin du, baita ikastoletan ere eskaera gora doa, nahiz eta egoera normalizatu ez den. Horretan, hain zuzen, lagundu du UDALBIDEk 1.400.000 eurekin. Horien jasotzaile izan dira besteak beste Irunberriko Arangoiti Ikastola, Tuterako Argia Ikastola, Elizondoko Baztan Ikastola, Vianako Erentzun Ikastola, Lodosako Ibaialde Ikastola, San Adriango Gure Etxea-Casa Nostra Ikastetxea, Zangozako Ikastola, Berako Labiaga Ikastola, Sortzen Elkartea, eta abar.

#### KOMUNIKABIDEAK

Nafarroan, euskararen erabilera normalizatzearen alde lan egiten duten komunikabide ugari dago. UDALBIDE Elkarlan Elkartek horietako asko lagundu nahi izan ditu euren proiektuak, anitz askoak, garatzen. Agerikoa da, egun, komunikabideek gure gizartean duten funtsa, eragina, lan egiteko era. Euskaraz aritzea esparru horretan ez da erronka erraza, traba ugari direla medio, batzutan arrazoi instituzionalak zein administratiboak direla, bestetan irizpide ekonomizistak direla eta zenbaitetan horien guztien uztartzea dela. Euskal hedabideen aldeko apustua egin du UDALBIDEk eta Nafarroa osoan EITBren seinalea berme osoz jasotzeko proiektua, Euskalerrria Irratia, Nafarroako Topaguneak koordinatuko duen Nafarroako Irrati Euskaldunen Sarea (NIES), Xorroxin Irratia, Nabarra Aldizkaria paperan zein sarean, Ekialde: Pirinioetako Aldizkari Euskalduna eta abarren artean 400.000 euro baino gehiago banatu ditu..

## EUSKALGINTZA

Nafarroaren aniztasunaren defentsan jardun diren euskalgintzaren eragile ezberdinen artean 700.000 euro banatu ditu UDALBIDEk, euskara eta euskal kulturari dagokion esparru historikoa bermatua izan dadin. UDALBIDE Elkarlan Elkartek Iruñean duen egoitzatik Nafarroako euskalgintzako eragile ugari igaro dira. Lankidetzaz Hitzarmen horien guztien sinaduren aurrean zera adierazi du behin eta berriz UDALBIDEk: "Euskalgintzako eragileek egiten dute lana, beraiek dute adorea; guk, dirua. Alboan izanen gaituzte". Tartean izan dira: Euskara Kultur Elkargoa, Irujo Etxea, Nabarralde, Orreaga Fundazioa, Eusko Kultur, etcétera.

## IPARRALDEA

UDALBIDE Elkarlan Elkartek Euskal Herri osoa du lan esparru, horrekin batera diaspora edota "Zortzigarren Probintzia" kontutan hartzen delarik ere. Gure ingurune gertuari dagokionez, arreta berezia merezi duena akaso Ipar Euskal Herria da. Bertan euskara eta euskal kulturaren egoera oso bestelakoa da. UDALBIDEren Zuzendaritza Batzordeko kidea den Ramuntxo Camblong-ek adierazi bezala, "nortasuna bada garapen ekonomikoa bultzatzeko biderik egokiena". Euskal nortasunaz ari zen noski, eta zera gaineratu zuen: "Frantziaren helburua euskal nortasuna desegitea da, azukrea urean bezala".

Testuinguru honetan, beste bide zenbaitekin batera, UDALBIDEk komunikabideak, hezkuntza esparruko taldeak eta elkarteak, euskalgintzako eta lan munduko eragile eta erakunde zenbait lagundu nahi izan ditu bide maldatsua hau zertxobait lautzen. Laguntza jaso dute esaterako Gure Irratiak, Euskal Irratiek, Herria Astekariak, Hemen Elkartek, Gaindegiak, SEASKAk, Maite Dugulako Elkartek, Hiruki Elkartek, Luma Elkartek, Haize Berri Kultur Etxeak, Hezkuntek Elkartek, Pika Elkartek eta abar luze batek.

Hauek guztiek abiatu dituzte proiektu arras ezberdinak, baina oro har helburu berarekin: Iparraldean euskara, euskal kultura eta euskal identitatea suspertzea. Horretan izan dute UDALBIDE Elkarlan Elkartea lagun:

- Iparraldean etorkizun euskaldunaren haziak zaintzeko helburua duten Ikas-Bi, SEASKA eta haurtzaindegi zenbaiti, euren lana behar bezala egin dezaten, 1.200.000 euroko laguntza luzatu die UDALBIDEK.
- UDALBIDEK egindako 200.000 euroko inbertsioari esker, Iparraldeko euskal komunikabideek euren lana egiten jarraitu ahal izanen dute etorkizunean egun arte egin bezain txukun, baliabide guztiekin.
- Iparraldean euskalgintza sustatzearren, UDALBIDEK 70.000 luzatu dizkie elkarte eta kultura eragile ezberdin askori, sustraiak errotuz, kimu berriak jasotzeko xedearekin.

## **EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA**

Agerikoa da UDALBIDEK euskal hezkuntzari ematen dion garrantzia, Euskal Herria osoan. Esaterako, urteotan EAEn eta Trebiñon garatu hezkuntza proiektu ezberdinetan 180.000 euro inbertitu ditu, jada osatua dagoen egitura finkatzearen.

Batera, EAEn ugari dira etengabe euskara eta euskal kultura sustatzeko aurkezten diren proiektuak; UDALBIDE horien alboan egon da, eta berdintsu jarraitzeko asmoa duela erakusten dute, esaterako, euskalgintzan inbertitu 100.000 euroek.

## **EUSKAL HERRIA MAILAKOAK**

Lan mundua da UDALBIDEn erronketako bat: euskal enpresak zein euskalduntzear daudenak, eta berauek sustatu eta lagunduko dituzten elkarte eta erakundeak izan dira 85.000 euroen jasotzaileak. Bertan dugu Gaindegia, hots, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategia Elkarte, bere egoitza sozialak UDALBIDEn laguntzaz zabaltzen ari delarik. Horretan da ere HEMEN Elkarte, lanpostuen sortzaile diren Ipar Euskal Herriko enpresak laguntzen, Euskal Herriaren irudia modu ezin onuragarriagoan baliatzen. Edota euskara eta euskal kultura zein identitatearen oinarri den nekazal mundua modu jasangarrian garatu nahian dabilen Euskal Herriko Laborantza Ganbara.

Bestetik, gure kulturaren erakusle diren kirolak sustatze lanetan dihardu ere UDALBIDEk; kirol arloan 220.000 euro inbertitu dira, kirol ekimenak suspertzen, federazioak osatzen, txapelketak antolatzen eta abar; oro har Euskal Herria mailan.

## **HURBILTZEN**

HURBILTZEN egitasmo honen helburu nagusia zera da: Euskal Herriko udalen arteko senidetze akordioak bultzatu, euskal hiritarren arteko harremanak indartu ahal izateko.

Udalen arteko senidetze akordioak duela zenbait hamarkadatik hona garatu den praktika ezagun bat dugu. Udal askok, dagoeneko esperientzia luze eta aberasgarria dute arlo honetan.

UDALBIDE, haratago doa, beste pauso bat emanez: Hirunakako senidetzeak bultzatzen saiatzen ari gara: Iparraldeko bat, Nafarroako bat, eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste bat. Akordioak udalek bultzatzen dituzte. Halaber, horiek izanen dira bitartekari lana eginen dutenak. Nolanahi ere, hiritarrak dira protagonista nagusiak, euren elkarte eta kultur edo kirol taldeen bitartez.

Gehien errepikatzen diren elkarlan gaiak hauek dira: euskara, hezkuntza, gazteria, hirugarren adina, udal kudeaketa, kirola, turismoa, aisia, gastronomia, artisautza, musika, dantza, margolanak eta eskulangintza. Gai anitz daude eta bata edo bestea hautatu, parte hartzen duten udalerrien interes eta borondatearen baitan egonen da.

HURBILTZEN egitasmoaren bitartez finantziario laguntzaz gain, aholkularitza profesionala eskaintzen diegu udal guztiei, senidetze programa hau garatzeko, bai metodologiari, bai informazioari, bai esperientzia desberdinen bateratze lanari dagokionez. Halaber, bertze diru iturriak lortzeko ere, laguntza eskaintzen da.

## **ONDORIOA-AGURRA**

Orrialde hauetan bildutako hauek guztiak lagin bat besterik ez dira, izan ere, 2006rako beste proiektu ugari helarazi baitzaizkio Kohesio Fondo honi, hezkuntza, komunikabideak, euskalgintza, lan mundua edota kirol arloan. Azken batez Euskal Herriaren eraikuntza nazionalerako oinarri diren arloetan.

UDALBIDE Elkarlan Elkarteko zuzendari Jose Luis Mendozak agertu bezalaxe, "argi izan behar dugu gure elkarte hau Kohesio Fondoa badela, Euskal Herriaren eraikitzea helburu nagusitzat duen fondoa". Honetan elkartasuna da ezaugarri nagusia, izan ere, egoera ezberdin askoak badira gure herri honetan eta horien arteko oreka bilatzea da ere UDALBIDEren helburu. Hortaz, askotan Euskal Autonomia Erkidegoaren elkartasuna ezinbestekoa da Nafarroa zein Iparraldeko egoera samurtzarren. Mendozak argi adierazi bezala, "gu ez gara aitzindari, laguntzaileak baizik; guk inondik ere ez diegu elkarte, talde, ikastetxe eta besteri esaten zer egin behar duten. Aldiz, beraiek luzatu ekimen eta proiektuetan lagun izanen gaituzte, zalantzarik gabe, Euskal Herriaren kontzientzia ernatze bidean".

## **"ELKARTEGINTZA: DEMOKRAZIA ETA HERRIEN EUROPAREN OINARRI"**

Europako Batasunak erronka handiei heldu die, esaterako, kide gehiago sartu dira eta Konstituzio Itun berria onetsi dute. Beraz, elkarrizketan, dibertsitatean eta aniztasunean oinarrituriko kultura politikoaren alde lan egin beharra dago. Herriak eta herritarrak eraikuntzaren erdigunean jarriko dituen Europaren alde lan egin nahi dugu, bai eta bere baitako nazioen estatus politikoa aintzat hartuko duen Europaren alde ere.

UDALBIDE Elkarlan Elkartean argi daukagu europar intereseko Federazioa izan nahi dugula. Hortaz, 2001eko uztailean, Batzordeak bere egin zuen Europako Gobernantzari buruzko Liburu Zuriak ekarritako funtsezko mezuetako bat. Hona hemen: Europako elkarteak gizarte europarraren oinarrietako bat dira eta erabat lagungarri gertatzen dira Europako herritartasunaren ideari zentzua eta esanahia emateko; (...) lotura naturala dira herritarren eta botere publikoen artean. Hain zuzen UDALBIDE Elkarlan Elkarleak lekuko hori hartu nahi izan du berriz 2006ean.

Gizartean txertatzeko eta kontu publikoetan parte hartzeko lanabesa da Elkartegintza. Agerikoa da elkarteek funtsezko eginkizuna betetzen dutela gizartearen hainbat esparrutan. Era berean, elkarteek herritarren ekimena sustatu egiten dute eta errotu demokrazia aurreratua, herritarren interesen ordezkariak baitira botere publikoen aurrean. Alde horretatik, funtsezko eginkizuna betetzen dute, besteak beste, alor hauetan: giza eskubideen sustapena, gazteria, osasun publikoa, kultura, lana sortzea eta antzeko beste batzuk. Xede horrekin, Legeak aurreikusten du Administrazio Publikoek laguntzak eta dirulaguntzak ematea, betiere indarrean dauden lege eta arauekin bat. Batera, elkarteek Administrazioekin elkarlanean aritu behar dute, bai eta industriarekin, merkataritzarekin, enpresa-buruen erakundeekin eta erakunde sindikalekin ere, bereziki gai hauetan: kultura, ingurumena, hezkuntza, osasuna, gizarte babesa, langabeziaren aurkako borroka eta giza eskubideen sustapena. UDALBIDE Elkarlan Elkarleak ordezkari horiekin elkarlanean aritu nahi du, bere helburuak betetzeko.

Izan ere, elkarteek gizartearen eta politikaren bizitzan parte hartzen baitute askatasunetik eta aniztasunetik eta, aldi berean, aitortu ere aitortzen zaie beren eginkizunak oso garrantzitsuak direla, gizartea aldatu eta eraldatzeko eragile diren aldetik, subsidiariorotasun-printzipioaren arabera.